

## SIAL PARIS 2016

## Deialdia

**Tokia:** *Parc des Expositions Paris Nord Villepinte* azoka esparrua - Paris

**Data:** 2016ko urriaren 16tik 20ra

**Maiztasuna:** Bi urtean behin

**Sektorea:** Nekazaritzako elikagaien eta edarien profesionalak oro har

**Erakusketa eremua:** 250.000 m<sup>2</sup>

**Izena emateko epea:** **2016ko maiatzaren 27an**

**Informazio gehiago:** María Fdz. de Romarategui / Marisa García de Vicuña

Tel. 945 14 18 00

[internacional@camaradealava.com](mailto:internacional@camaradealava.com)

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak, Elikaduraren Euskal Industria kanpoan sustatzen laguntzeko jardueren barruan, **SIAL PARIS 2016** azokan Euskadiko enpresen baterako parte hartzea antolatu du.

**Eusko Jaurlaritzak** 150 m<sup>2</sup>-ko espazioa edukiko du 2016ko SIAL azokan, stand indibiduala edo stand bikoitzarekin parte hartu nahi duten elikadura industriako euskal enpresentzat.

### DEIALDI HONETAN

Azokaren izaera

Eskeinitako zerbitzuak

Parte hartzeko baldintzak

Bidaia eta ostatua

Parte hartzeko modeloa eta kostua

Eusko Jaurlaritzarekin parte hartzea

### **IZEN EMATE FITXA**

## AZOKAREN IZAERA

---

[www.sialparis.com](http://www.sialparis.com)

- Azoka hau publiko profesionalera dago zuzenduta eskusiboki.
- Alemaniako ANUGA azokarekin batera, mundu mailan elikaduraren sektoreko hitzordu nagusiak dira, 190 herrialde baino gehiagotako bisitariak erakartzen baitituzte.
- Azokara joaten diren nekazaritzako elikagaien 155.000 bisitari profesional baino gehiagok joera, produktu eta hornitzaile berriak aurkitu nahi dituzte.
- Erakusleen artean elikagaien eta edari alkoholodun eta alkoholik gabekoen ekoizle nagusiak daude, sektoreko azoka garrantzitsuenetakoa izanik.

## PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

---

Ekitaldian parte hartu ahal izango dute egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresa produktoreek, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Elikadura Industrien Erregistroan izena emanda badaude.

### 1. Azokaren aurretik

- Enpresaren ordezkari baten aldetik joateko konpromisoa eta kuota ordaintzea; beraz, EAEko pabiloian sartuko dela jakinarazten denetik ezingo da ekitaldian baja eman. Halabeharrezko kasuetan baino ez, antolakuntzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren portzentaje bat itzultzeko.
- Muntatzen den egunean enpresak derrigor egon behar dira, esaten zaien orduan merkantzia jasotzeko, eta beraien erakustokien dekorazioa amaitzeko, jardunaldia hasi baino lehenago.

### 2. Azokan zehar

- Euskal Autonomia Erkidegoan fabrikatutako produktuak baino ezingo dira erakutsi.
- Standetan azokako egun guztietan eta zabalik dagoen ordu guztietan eman behar da arreta.
- Azoka amaitzerakoan produktu guztiak behar bezala jaso eta standeko elementuak entregatu, jaso ziren egoera berberetan.

### 3. Azokaren ondoren

- Ebaluazio inkesta bete eta eskatzen zaienean entregatu.

## PARTE HARTZEKO MODELOA ETA KOSTUA

EAEko partaidetza bateratuko taldean parte hartu nahi duten enpresak honetaz baliatu ahal izango dira:

- Stand partekatua: 150m2 elikagaien euskal industriako enpresentzat.
- Kokapena: Munduko Pabiloi Nazional eta Erregionaletako 2. Hall, gainerako erkidego autonomoen eta ICEXen ondoan.

Enpresa Parte hartzaileek bi modeloren artean aukeratu ahal izango dute:

- Stand modelo **indibiduala**
- Stand modelo **bikoitza**

SIAL 2016an, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasunerako Saitetik Euskal Autonomia Erkidegoko lehen sektorearen produktua eraldatu eta merkaturatzen duten enpresen parte hartzea bultzatuko da.

Ondoren ekintzetan parte hartzeak dakarren kostua finantzatzeko diru laguntzetarako egingo den sailkapena adierazten dugu.

### 1. motako enpresa

Batez ere Euskadiko lehengaiz hornitzen diren enpresak. Enpresak produktuaren jatorria egiaztatu beharko du.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen diru laguntza %70 izango da, eta kostuak honela geratzen dira:

**Stand indibiduala:**

1.884 € + BEZ %21 = 2.279,64 €

**Stand bikoitza:**

3.768 € + BEZ %21 = 4.559,28 €

### 2. motako enpresa

Euskadin behar duten lehen sektoreko produkziarik egon ez eta Euskaditik kanpoko lehengaiak erabiltzen dituzten enpresak.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen diru laguntza %50 izango da, eta kostuak honela geratzen dira:

**Stand indibiduala:**

3.139 € + BEZ %21 = 3.798,19 €

**Stand bikoitza:**

6.278 € + BEZ %21 = 7.596,38 €

### 3. motako enpresa

Euskadin behar duten lehen sektoreko produkzioa egon arren Euskaditik kanpoko lehengaiak erabiltzen dituzten enpresak.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen diru laguntza %30 izango da, eta kostuak honela geratzen dira:

**Stand indibiduala:**

4.395 € + BEZ %21 = 5.317,95 €

**Stand bikoitza:**

8.790 € + BEZ %21 = 10.635,90 €

*Oharra: stand bikoitza edo partekatua esleitzeko irizpidea enpresa parte hartzaileen kopurua izango da.*

Parte hartzeko kuota i zatitan ordainduko da, baina faktura bakarra izango da.

- Zenbatekoaren %50 + BEZ %21 izena emateko orduan eta espazioa erreserbatzeko kontzeptuarekin.
- Gainerako zenbatekoa jardunaldia egin baino 60 egun lehenago ordaindu beharko da.

Faktura eskaria onartu eta gero egingo da.

## ESKEINITAKO ZERBITZUAK

Eusko Jaurlaritzak zerbitzu hauek eskainiko ditu:

### Espazioa kontratatzea

Espazio promozional batekin parte hartuko da, eta hori enpresa ko-erakusle bakoitzerako pertsonalizatutako standetan banatuko da.

### Pabiloiaren dekorazioa

Standa hornitzeko dekorazioa eta oinarrizko altzariak uniformeak izango dira EAEko erakusle guztientzat, eta, edonola ere, hau egongo da:

- Mahaia eta aulkiak
- Erakusmahai bat
- Enpresa erakuslearen errotulua
- Konexio elektrikoa
- Biltegia
- Hotz kamera (erabilera komunitarioa)

Stand bakoitzerako potentzia elektrikoko tope batzuk eta gehienezko kontsumo batzuk egongo dira, eta horren berri jakinaraziko zaie ko-erakusleei parte hartzea prestatzeko tramiteak hasten direnean.

*Oharra: Standetako oinarrizko altzarietan, elementu elektrikoetan edo elektrizitateko beharretan egin beharreko aldaketa oro, horien hazkundea edo aldaketa eragiten badu, ko-erakusle bakoitzak zuzenean kontratatuko du, eta bere gain hartuko du gehitutako kostua dekoratzailearekin, zeinak zuzenean fakturatuko dion zerbitzua.*

## Merkantziaren garraioa

Eusko Jaurlaritzak merkantziaren bidalketa bateratu bat antolatuko du esleitutako garraiolari ofizialak adierazten duen lekutik merkantzia standean bertan entregatu arte.

Merkantzia bidaltzearen kostua enpresa ko-erakusleak finantzatu behar du.

Bere garaian, esleipena duen enpresa garraiolariaren datuak emango dira.

## Azokaren katalogo ofizialean sartzea

Eusko Jaurlaritzak azokara joaten diren enpresa erakusle guztiak azokaren antolakuntzak argitaratzen duen katalogo ofizialean agertzeko egin beharreko tramite guztiak egingo ditu; bertan ekitaldiko erakusle guztiak agertzen dira erregistratuta (IZENA EMATEKO FITXAn jasotako datuak agertuko dira).

## Komunikazio kanpaina

Eusko Jaurlaritzak komunikazio kanpaina masibo bat egingo du, non hainbat herrialdeetatik aurrez erregistratutako erosle bisitariak pabiloiaren eta enpresa ko-erakusleen kokapen zehatza jakinaraziko zaien, horiek bisitatzeko gonbita eginez.

## Pabiloia mantentzea (garbiketa, elektrizitatea, ura, etab.)

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen ditu garbiketako zerbitzu orokorrak, elektrizitatea, ura, etab., eta, oro har, pabiloia egoki mantentzeko lanak.

Stand bakoitzerako potentzia elektrikoko tope batzuk eta gehienezko kontsumo batzuk egongo dira, eta horren berri jakinaraziko zaie ko-erakusleei parte hartzea prestatzeko tramiteak hasten direnean.

**Oharra:** *Standetako oinarrizko altzarietan, elementu elektrikoetan edo elektrizitateko beharretan egin beharreko aldaketa oro, horien hazkundera edo aldaketa eragiten badu, ko-erakusle bakoitzak zuzenean kontratatuko du, eta bere gain hartuko du gehitutako kostua dekoratzailearekin, zeinak zuzenean fakturatuko dion zerbitzua.*

## Hotz kamerak eta beste etxetresna elektriko batzuk

Hotz kameren eta beste etxetresna elektrikoaren alokairua erakuslearen kontu izango da. Halere, Saila enpresen esanetara jartzen da zerbitzu hori kontratatzea koordinatzeko, eta zerbitzuak zuzenean erakusleari fakturatuko zaizkio.

## BIDAIA ETA OSTATUA

---

Jarduera honetan **ez daude sartuta** desplazamendu eta ostatu gastuak. Halere, Saila enpresen esanetara dago bidaia eta ostatu koordinatzen laguntzeko enpresa ko-erakusleak horrela eskatzen badu; kasu horretan, fakturazioa indibidualizatua izango da enpresa bakoitzarentzat.

## EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

Parte hartzeko interesa baduzu, eta leku kopurua mugatua denez, gomendatzen dugu izena emateko fitxa behar bezala beteta lehenbailehen bidaltzeko e-mail bidez: [internacional@camaradealava.com](mailto:internacional@camaradealava.com) edo fax 945 143 156, María Fernández de Romarategui edo Marisa García de Vicuña zuzenduta.

Enpresa parte hartzaileen hautaketa izena emateko dokumentuak jasotzeko hurrenkeraren arabera egingo da. Zure eskaria kontuan hartzeko, honako dokumentu hauek bidali behar dituzu adierazitako helbideetara fax edo mezu elektronikoko bidez:

**1. Eskari fitxa behar bezala beteta.** Fitxa horretatik bertatik transkribatuko dira datuak azokaren katalogo ofizialerako.

**2. Gunea erreserbatzeko kuotaren ordainagiria (kostuaren %50 + BEZ %21).**

Ordainketa banku transferentzia bidez egingo da:

Kontu zenbakia: **ES24 2095 3150 2310 9095 1178**, ARABAKO MERKATARITZA ETA INDUSTRIA GANBERAREN izenean.

Kontzeptua: "*Enpresaren izena + SIAL PARIS 2016 –Gunearen erreserba*".

Arabako Merkataritza eta Industria Ganberako Finantza Departamentuak dagokion zenbatekoaren faktura igorriko dizue, parte hartzea baieztatu eta gero.

### IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA: 2016eko MAIATZAK 27

Bigarren zatiaren ordainketa ekintza egin baino 60 EGUN LEHENAGO egingo da.

**GARRANTZITSUA:** Izen ematea formalki egindakotzat jotzeko, **ESKATUTAKO DOKUMENTU GUZTIAK** bidali behar dituzue, eta izena emateko data gisa, ondorio guztietarako, izena ematearen ordainketaren data agertuko da.

Eskatutako dokumentuak bidaltzeak **EZ DU ESAN NAHI** enpresak EAeko pabiloian parte hartuko duela, izan ere, gutxieneko enpresa kopuru bat egon behar da hori egiteko. Arabako Ganberak jakinaraziko du izen ematea onartu dela.

**ENPRESAK FAKTURA JASO ETA GERO, HAU DA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PABILOIAN SARTU DELAKO JAKINARAZPENA JASO ETA GERO, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU.** Halabeharrezko kasuetan baino ez, antolakuntzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren portzentaje bat itzultzeko.

Enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzeko kasu hauek baino ez dira kontuan hartzen:

- Enpresa erakusleak eskatutako gunea Azokaren Antolakuntzak Arabako Ganberari esleitutako gunea baino handiagoa bada, hautatu ez diren enpresek eskubidea izango dute aurrez izena emateko kuota itzultzeko.
- Arabako Ganberak halabeharrez edo nahiko partaiderik ez dagoelako parte hartzea bertan behera uzten badu, enpresek eskubidea izango dute ordaindutakoaren %100 jasotzeko.

## IZENA EMATEKO FITXA

SIAL PARIS 2016 azokan Euskal Autonomia Erkidegoko erakusle moduan egon nahi dut,

STAND INDIBIDUALA

STAND BIKOITZA, datu hauekin:

| Sozietatearen izena:                    |            |
|---|------------|
| I.F.K.:                                 | EIE zk.:   |
| Helbidea:                               |            |
| P.K. - Udalerria:                       |            |
| Probintzia:                             |            |
| Tel.:                                   | E-maila:   |
| Fax:                                    | Web:       |
| Standaren arduraduna:                   | Mugikorra: |
| Standaren errotulua:                    |            |
| Enpresaren izena KATALOGO OFIZIALERAKO: |            |
| Erakutsiko diren produktuak eta markak: |            |
| Produktua                               | Marka      |
| 1                                       |            |
| 2                                       |            |
| 3                                       |            |
| 4                                       |            |
| 5                                       |            |
| 6                                       |            |
| 7                                       |            |
| 8                                       |            |

Data, sinadura eta enpresaren zigilua:

Bidali, behar bezala beteta, a2016ko maiatzaren 27 baino lehen, posta elektronikoz e-mail: [internacional@camaradealava.com](mailto:internacional@camaradealava.com) edo fax bidez 945 143 156, transferentziaren kopiarekin (bankuko ordainagirian jarri "Enpresaren izena + SIAL PARIS 2016-Gunearen erreserba")

